DINOSAUROEN KOBA

ARMADURADUN PIZTIEN ARTEAN



Egilea:
REX STONE

Irudiak:
MIKE SPOOR

Itzultzailea:
USOA WYSSENBACH

FITXA

⇨ JAMIE DUELA GUTXI ETORRI DA HIRITIK DINOSAUROEN BADIAKO ITSASARGIRA BIZITZERA. BERE AITAK DINOSAUROEN MUSEO BAT IREKIKO DU ITSASARGIAREN BEHEKO SOLAIRUAN. JAMIE FOSILAK BILATZERA JOAN, ETA HERRIKO MUTIL BAT EZAGUTU DU, TOM, ETA BI LAGUNEK BENETAKO DINOSAUROAK DITUEN MUNDU BAT AURKITU DUTE! LILURAGARRIA DA DINOSAUROEN OINATZAK JARRAITZEA, BAINA UNE ARRISKUTSUAK IGAROKO DITUZTE ETENGABE.

JAMIE

- **IZEN-ABIZENAK:** JAMIE MORGAN
- **ADINA:** 8 URTE
- **TAMAINA:** JATOM BAT*
- **GEHIENEKO ABIADURA:** 24 KM/H
- **ATSEGIN DU:** FOSILAK BILATZEA ETA DINOSAUROEI BURUZ IKASTEA
- **EZ DU ATSEGIN:** ETXEAN GELDITU BEHAR IZATEA

Begia

Oina

Eskua

***OHARRA:** JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA: 125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

TOM

- **IZEN-ABIZENAK:** THOMAS CLAY
- **ADINA:** 8 URTE
- **TAMAINA:** JATOM BAT*
- **GEHIENEKO ABIADURA:** 24 KM/H
- **ATSEGIN DU:** ANIMALIEN OINATZAK JARRAITZEA ETA BASA BIZITZA ESPLORATZEA
- **EZ DU ATSEGIN:** EGUN EURITSUAK

Begia

Eskua

WANNA

- **IZENA:** WANNANOSAURUS
- **ADINA:** 65–80 MILIOI URTE**
- **TAMAINA:** JATOM BAT*
- **GEHIENEKO ABIADURA:** 50 KM/H. BEREZIKI T-REX BATEK HARRAPATU NAHI DUENEAN
- **ATSEGIN DU:** GINKGO IZENEKO FRUTA KIRATSA ETA ZUHAITZEN ENBORRAK BURUAZ JOTZEA
- **EZ DU ATSEGIN:** DINOSAURO BELDURGARRIAK

Burua

Hanka

***OHARRA:** JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA: 125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

****OHARRA:** ZIENTZIALARIEK "GOI KRETAZEOA" DEITZEN DIOTE GARAI HONI

ANKILOSAUROA



- **IZENA:** ANKYLOSAURUS
- **ADINA:** 65-80 MILIOI URTE**
- **ALTUERA:** 2 JATOM*
- **LUZERA:** 9 JATOM*
- **PISUA:** 150 JATOM*
- **ATSEGIN DU:** LANDAREAK ZANPA-ZANPA JATEA ETA GASA EKOIZTEA
- **EZ DU ATSEGIN:** LOKATZETAN TRABATUA GERATZEA

***OHARRA:** JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA:
125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

****OHARRA:** ZIENTZIALARIEK "GOI KRETAZEOA" DEITZEN DIOTE GARAI HONI

Herria
Kirol-portua
Itsasargiaren lur-muturra


Lokatza eta fosilak dauden lur-jausiak
Hondartza lohitsua
DINOSAUROEN KOBA
Hondartza, itsasgora dagoenean
Hondartza, itsasbehera dagoenean
Itsasoa
Kontrabandisten gunea



Jamiek fosil txiki bat atera zuen Dinosauroen Badiako hondartzako lokatzetik. Gauean luizi bat izan zen, eta sekulako basatza lirdinga zegoen hondartzan. Fosilak punta zorrotzeko arkatz txiki eta lodia zirudien. Galtza bakeroetan igurtziz garbitu, eta Tom bere lagunik onenari pasatu zion.

—Dinosauro baten hortza izan liteke –esan zuen Jamieren aitonak arrantzarako saskia lurrean utzita eta aurreraka makurtuta gertuagotik ikusi ahal izateko.

—Hori ez da dinosauro baten hortza –erantzun zion Tomek–. Ez dute halako hortzik benetako Dinoen…



Jamiek kolpe bat eman zion Tomi ukondoaz. Aitonak ez zekien Dinosauroen Badiako koba sekretu batera sartu zirenean benetako dinosauroak bizi ziren mundu bat aurkitu zutela.

—Ikus dezagun zer den –Jamiek bere motxilan begiratu zuen–. Iparrorratza… gazta eta ozpinkiz egindako ogitartekoak… Fosil Aurkitzailea! –Eskuko ordenagailuaren tapa ireki, eta "arkatz txiki eta lodia" idatzi zuen bilaketak egiteko laukitxoan. Di-da batean, fosilaren irudi bat agertu zen–.

BE-LEM-NI-TE –irakurri zuen–: "BALA FORMAKO FOSIL HAU ITSASOKO IZAKI BATENA ZEN. TXIPIROIAREN ANTZA ZUEN" –Jamiek kolpetxo batez itxi zuen Fosil Aurkitzailea, eta motxilan sartu zuen belemnitearekin batera.

—Txipiroi fosila, e? –esan zuen aitonak barrez–. Jateko ez dute balio, ordea! Kanpora noa arrain freskoak harrapatzera.